

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak 'Amado Alonso' Literatura Kritikaren Nazioarteko Saria Toni Montesinosi emango dio gaur arratsaldean

Egilea 39 hautagaien artean nagusitu da 'El éxito y la rabia. Lecturas emparejadas de narrativa estadounidense' obrarekin

Viernes, 22 de marzo de 2013

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak ['Amado Alonso' Literatura Kritikaren Nazioarteko Saria Toni Montesinos Gilbert-i](#) emango dio gaur arratsaldean Leringo Udalean. Montesinos lehiaketako hamaikagarren edizioaren irabazle suertatu da 'El éxito y la rabia. Lecturas emparejadas de narrativa estadounidense' obrarekin.

5.000 euroko saria da eta obra irabazlea argitaratzen da. Obra hori [Amado Alonso fundazioak](#) eta Pre-Textos argitaletxeak batera argitaratu dute 'La pasión incontenible. Éxito y rabia en la narrativa norteamericana' tituluarekin.


Epaimahaiak lana saritu du XX. mendeko AEBko

narrazio-corpus bat aukeratzeagatik literaturan lehen mailakoa dena, eta egileak duten gaitasunagatik egileak eta obrak parekatzeko ikuspegi kritiko batekin, dokumentazioa azterketa argiarekin nahiz pertsonalarekin batzen direnak.

Lehiaketak nazioarteko ospea du gaztelaniazko literatura-ikerketaren arloan, eta haren hamaikagarren edizioan Espainia, Frantzia, Argentina, AEB, Ekuador edo Mexikoko 39 lan aurkeztu dira

Amado Alonso fundazioak antolatu du, eta bertan parte hartzen dute Foru Gobernuak, Leringo Udalak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP).

Erakunde horien ordezkartzan, bertan honako hauek izango direla aurreikusten da: bigarren lehendakariorde eta Kulturako, Turismoko eta



Amado Alonso.

Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáin; Leringo alkate Marcelino Azcoiti; NUPko Unibertsitate Proiektzio errektoreorde Eloísa Ramírez; eta epaimahaiaren kide Emilio Echavarren.

Aurreko edizioetan, sari hori erdietsi dute: María Isabel López Martínez (2002); Gloria Estela González-Zenteno (2003); Ángel Pérez Martínez (2004); Miguel Zugasti Zugasti (2005); Josep María Rodríguez Cabrera (2006); Alberto Santamaría Fernández (2007); Magda Beatriz Lahoz de Klinsky (2009), Alejandro Bekes (2010) eta Mario Martín Gijón-ek (2011).

Toni Montesinos

Toni Montesinos Bartzelonan jaio zen, 1972an. Hispaniar Filologia ikasi zuen Bartzelonako Unibertsitatean eta Giza Zientzietan doktoratu zen Pompeu Fabrako Unibertsitatean. Gaur egun, 'La Razón' egunkariko literatura-kritikaria da 2000. urtetik eta 'Clarín' eta 'Letra Internacional' aldizkarien kolaboratzaile.

Bi nobela idatzi ditu –'Solos en los bares de noche' (Mondadori, 2002) eta 'Hildur' (Paréntesis, 2009) – eta era guztietako edukien 'El gran impaciente. Suicidio literario y filosófico' (March Editor, 2005) liburua. Gainera, honako poesia-liburu hauek argitaratu ditu: 'El atlas de la memoria' (Eclepsidra, 1998), 'Labor de melancolismo' (Colegio del Rey fundazioa, 2000), 'La ciudad gris' (El Toro de Barro, 2001; La Isla de Siltolá, 2011) eta 'Sin' (Huacanamo, 2010). Gainera, New York-i buruzko poemak eta bidaiak-kronikak bildu ditu 'Escenas de la catástrofe' (Polibea, 2010) liburuan.

Poesia eta narrazio unibertsalen inguruko saiakerak 'Experiencia y memoria' (Renacimiento, 2007) eta 'Desarticulación' (Metropolisiana, 2009) liburuetan jasota daude, hurrenez hurren, eta zinema-gaiari buruzkoak 'Que todo en la vida es cine. Escritos autobiográficos sobre películas' (Literaturas Com Libros, 2013) liburuan.

Halaber, Ángel Crespo, Benito Pérez Galdós, Luis Rogelio Noguera, José Balza, Horacio Quiroga, Jaime Quezada eta José Antonio Ramos Sucre-rekin editatu du, 'Trenes de marzo' (Barcelona, 2006) opera elektroakustikaren libretoa idazteaz gain, 2009. urtetik ['Alma en las palabras' bloga](#) du.

Amado Alonso fundazioa

Amado Alonso fundazioa 2001eko martxoaren 20an sortu zen, sorreran hiru erakundek parte hartuz: Nafarroako Gobernuak, Leringo Udala eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Harrezkero, Fundazioa, Estatutuen arabera Leringo alkatea buru duena, sortu zuten hiru erakunde horietako bakoitzak izendatutako bi pertsonak osatzen dute. 2011 arte bertako partaide izan zen ere, Juan Alonso, Amado Alonsoren semea.

2013an, Nafarroako Gobernuaren urteko ekarpena Fundazioaren funtzionamendurako 6.000 eurokoa da.

Amado Alonso fundazioak honako helburu hauek bilatzen ditu:

Amado Alonsoren bizitzaren ezagutza hobea izaten laguntzea. Irakasle nafarra eta munduko proiektzioa izan zuen filologo bikaina izan zen.

Espaniar filologian, gaztelaniaren didaktikan, literatura-teorian eta literaturakritikan Amado Alonsoren ekarpen zientifikoak indarrean segitzen duela aldarrikatzea

Amado Alonsoren, bere kolaboratzaileen eta jarraitzaileen obraren lan-ildoak eta espiritua garatuko dituzten ikerketa eta dibulgaziozko jarduerak sustatzea.

Amado Alonsori buruzko dokumentazio-bilketa sustatzea.

Helburu horiek betetzeko Fundazioak urtero "Amado Alonso" Literatura Saiakerako Nazioarteko Saria antolatzen du; liburutegi eta artxibo bat elikatzen ditu, filologoaren ondarean oinarrituz sortutakoak; eta [webgune](#) bat du Fundazioaren helburuei eta ekintzei buruzko informazioarekin.

2011n ere, Nafarroako unibertsitateen uda-ikastaroen barnean, Amado Alonsoren irudiari eta munduan gaztelaniak duen egoerari buruzko ikastaro bat antolatu zuen.

Amado Alonso

Amado Alonso García Lerinen jaio zen 1896an, eta AEBan hil zen 1952an. Lerinen urte gutxi bizi izan arren, herria hainbat aldiz bisitatu zuen heldutasunean, ama ikusteko; izan ere, amarekin korrespondentzia oparoa eta hunkigarria izan zuen.

Profesionalki, Amado Alonsok filologia-lanari Madrilen heldu zion gaztea zela. 1927an Argentinara jo zuen, han ia hogeitun urte eman zituen eta herrialde horretan egindako ikerketa eta irakaspenera apartekoa izan zen. Azken urteetan, nazioartean ospe handiko filologoa izanik, AEBan bizi izan zen, eta han hil zen minbiziak jota nahi baino goizago.

Amado Alonso espainolaren gramatika eta fonetikaren aztertzaile bikaina izan zen, bai eta literatura-estiloarena ere. Pablo Neruda poeta txiletar handiari buruz idatzi zuen liburua eredu garria da.